

6. AKTA

Bileretan gertatutakoa aktetan idazten da, jasota geratzeko. Idazki horiek hurrengo bilera hasi aurretik irakurtzen dira edo hurrengo bilerako deiarekin batera bidaltzen. Aktak ahalik eta laburrena, objektiboena eta argiena izan behar du. Testua zehatza eta partaideen oniritzia jasotzeko baldin bada, idazkariak bilerakide guztien iritzia aintzakotzat hartu behar ditu, eta uko egin behar dio berak gustukoaren dituen iritzia nabarmentzeko tentazioari.



6.1 OINARRIZKO ARGIBIDEAK

IZENBURUA
BILERARI BURUZKO ZEHAZTASUNAK Batzordea: Bilera zenbakia: Eguna: Ordua: Tokia:
BERTARATUAK:, lehendakaria :....., idazkaria
BERTARATU EZ DIRENAK:,,,,
AZTERGAIK: 1. Aurreko akta irakurri eta onartzea, hala badagokio 2. 3. 4. 5. Eskariak eta galderak
ESAN-EGINAK 1. Akta onartzea Lehendakariak bilerari hasiera eman dio, idazkariari aurreko akta irakurtzeko eskatuta. Erabakia: Batzordekideek aho batez onartu dute aurreko bilerako akta. 2. Erabakia: 3. Erabakia:
AMAIERA: Bilera amaitutzat eman dugu, eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egiten dut.
Toki-egunak Zarautz, 2003ko azaroaren 22a
Sinadura
Izen-abizenak Kargua
Eranskinak. 1. Eranskina: 2. Eranskina: 3. Eranskina:



A. IZENBURUA

Bertan, ahalik eta modurik laburrenean aktaren izenburua jarriko dugu.

B. BILERARI BURUZKO DATUAK

Orriaren goiko aldean, ezkerrean, ondorengo datuok jasoko ditugu:

- ✓ Batzorde edo lantaldearen izena
- ✓ Bilera zenbakia edo bileraren ezaugarri izan daitekeen beste edozein datu
- ✓ Bilera eguna
- ✓ Hasiera eta bukaerako orduak
- ✓ Tokia

Adibidez

Batzordea:	Zuzendaritza Batzordea
Bilera zenbakia:	0002
Eguna:	2003-10-09
Ordua:	19:00 - 20:30
Tokia:	Elkartearen egoitza (Zarautz)

C. BERTARATUAK

Izenburuaren ondoren bilerakideak zerrendatu behar dira. Jasotzen den lehen izena organoaren lehendakariarena izaten da eta azkena idazkariarena. Izena eta bi abizenen ondoren, koma jarri eta bilerakideen kargua edo zein erakundetako ordezkari diren zehazten da.

Bileran egondakoak jaso eta gero, bertaratu ez direnak ere aipatu egiten dira.



D. AZTERGAIAK

Atal horretan, bilera-deian aldez aurretik ezagutarazi eta bileran bertan aztertzen diren gaien zerrenda bilduko dugu, gai bakoitzaren aurrean zenbaki bat jarrita. Zenbaki horiek lagungarri gertatuko zaizkigu bileran eztabaidatutako gaiei banan-banan sarrera emateko eta bileran hartutako erabakiak gai horien hurrenkera berean jaso ahal izateko.

E. ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

Bilerakideen esan-eginak aurreikusitako aztergaien hurrenkera berean adieraziko ditugu. Horretarako, bertan esandakoak ezagutarazi aurretik, elkarrizketaren ardatza aipatu behar da: gaia, alegia.

Horra zenbait gomendio bileran esandakoak egoki jasotzeko:

■ Bilerakideen esan-eginak jasotzeko aztergaien hurrenkerrari begiratu behar zaio: horrela, gai bakoitza aurkezteko nahikoa da aztergaien arabera dagokion zenbakia adieraztea

■ Gaiari erreferentzia egiteko hizkuntzak baliabide ugari eskaintzen dizkigu:

...(a)ri buruz, ...(a)ren inguruan, ...(a)ri begira, ...(a)ri helduz, ...(a)ri lotuta, ...(a)rekiko, ...(a)ren gaia jorratzeko, ...(a)ren gaia aztertzeko, etab.

Adibidez: *Aurrekontuari dagokionez, idazkariak...*

■ Gaiari sarrera egiteko beste bide bat izan daiteke esan-eginak kronologikoki jasotzea:

Lehenengo eta behin, geroago, bilerari ekin ondoren, amaitu aurretik, bukatzeko...



- Gai bakoitza aipatu ondoren, bileran esandakoak adierazi behar dira. Hori egiteko era bat baino gehiago dago. Adibidez:

- ▶ Gertatutakoa kontaketa bailitzan eman daiteke. Adibidez:

Aurrekontua dela eta, Imanol Azkarragak: "aurrekontua egokia da, ondorioz, aldeko botoa emango dut."

- ▶ Edo zeharka adieraz daiteke, honakoak erabiliz: pentsatu, azaldu, jakinarazi, ezagutarazi, azpimarratu, zehaztu, argitu, gaineratu, mahaigaineratu, erantsi, ziurtatu, gogora ekarri, ohartarazi, ezeztatu, ukatu, aurka egin, erantzun, etab. Adibidez:

Imanol Azkarragak adierazi duenez, aurrekontua egokia da, eta beraz, aldeko botoa emango du.

- Akta egiten duenak (idazkariak) aditzaren orainaldi burutua erabiltzea da egokiena. Adibidez:

*Esan du, adierazi du... eta ez *esaten du, *adierazten du...*

Aztergai bakoitzeko esan-eginak jaso ondoren, bileran hartutako erabakiak eta egindako bozketak laburbiltzen dira.

Zenbait bileratan gai batzuk aztertu gabe gera daitezke. Horren arrazoia erabakien artean jasoko dugu.

F. AMAIERA

Amaierako esaldiak berdin samarrak izaten dira akta guztietan. Hona hemen amaierako esaldi batzuk:



Besterik gabe, bilera amaitutzat eman dugu.

Horrenbestez, amaiera eman diogu bilerari.

Bilera amaitutzat eman dugu, eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egiten dut.

Atal horretan, bestalde, hurrengo bilera non eta noiz egingo den ere jakinaraz daiteke.

G. TOKI-EGUNAK

Toki-egunak idazteko, akta egin den egunekoa jaso behar dugu.

H. IZENPEA

Akta idazkariak izenpetzen du.

I. ERANSKINAK

Bilerarekin zerikusia duen informazio gehigarri guztia eranskinetan ematea komeni da, testua gehiegi karga ez dadin. Eranskinak erabiltzen badira, laguntza handikoa izan daiteke testuan bertan haiei buruzko erreferentziak egitea. Adibidez:
Ikus 2. eranskina



6.2 AKTA EREDUA

Nork deitua: idazkariak

Bilera mota: ohiko batzarra

Bilera zenbakia: 003

Eguna: 2003-12-4, ostirala

Ordua: 19:00

Tokia: elkartearen egoitza

BERTARATUAK:

25 bazkide: Andres Gonzalez, Mirari Elustondo,.....; Miren Ostolaza, lehendakaria; Antxon Ugarte, idazkaria.

AZTERGAIAK:

1. Aurreko bilerako akta onartzea
2. 2003ko balantzea irakurtzea
3. 2004ko aurrekontua aurkeztea eta onartzea
4. Eskariak eta galderak

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1. Aurreko bilerako akta onartzea.

Lehendakariak bilerari hasiera eman dio, idazkariari aurreko bilerako akta irakurtzeko eskatuta.

Erabakia: batzordekideek aho batez onartu dute aurreko bilerako akta..

2. 2003ko balantzea irakurtzea.

Lehendakariak guztiaren laburpen txiki bat egin du. Aipatzekoa da kirolari federatuen parte hartze altua; guztira 600 bat kirolari federatu daude Arin Kirol Elkartean.

Erabakia: Oro har, emaitza onak lortu eta helburuak bete direnez, batzordekideek aurkeztutako balantze ekonomikoa onartu dute.

3. 2004ko aurrekontua aurkeztea eta onartzea.

Kirol bakoitzeko aurrekontuak aurkeztu ondoren, batuketa egin da eta, guztira, datoren urteko aurrekontu orokorra 400.000 eurokoa izango dela jakinarazi du lehendakariak.

Erabakia: Bozketa egin ondoren, aho batez onartu da aurrekontua.

4. Eskariak eta galderak

Ez da galderarik egin.

Amaiera: Batzarra 21:05ean amaitu da. Agiri hau egiten dut eztabaidatu eta erabaki duguna jasotzeko.

Zumaia, 2003ko abenduaren 20a

ANTXON UGARTE
Idazkaria

